



2.19 ANDOAINGO, HERNANIKO ETA USURBILGO UDALAK

1go alegazioa

Alegazioaren laburpena:

Aurreproiektua gelditzeko eta eraginpeko udalekin akordio batera heltzeko eskatzen da.

Alegazioari erantzuna:

Ez da aintzat hartzen.

Gaur egungo aurreproiektuaren aurrekaria Kontratazio Errekurtsoen Foru Auzitegiaren 2015eko martxoaren 23ko 5/2015 Ebazpen bidez indargabetu zen aurreproiektuan aurkitzen dugu. Aurrekoan parte-hartze prozesu bat eman zen. Bertatik ateratako emaitzak kontuan hartu dira, eta horiek dira aurreproiektu honen zerbitzuaren baldintzak finkatzeko oinarriak. Aurreproiektu horren kasuan indarreko araudian eskatutako parte hartzeko kanal guztiak bete dira.

Udalerriek eta erabiltzaileek jada izan zuten parte-hartze prozesu horretan iritzia emateko aukera, eta prozesu horren ondorioz, 2013ko uztailean hainbat linea esperimantal ezarri ziren. Hain zuzen ere, horri esker garai hartan kontuan hartutako eskaera guztiekin, benetako erabilera ezagutu ahal izan dugu. Hala, ikus daiteke linea askotan dimentsionamendua bat datorrela 2015ean proposatutakoarekin.

Eskaeraren inguruko informazio erreala dugunez, lineen dimentsionamendua garraioaren arrazionalizazio- eta optimizazio-irizpideen arabera egin da. Halaber, korridorean dagoen eskaeraren azterketa zehatza egin da, lau urte baino gehiago funtzionatzen ari diren zerbitzu esperimentalak barne. Denbora hori nahikoa da linearen eskaera, bilakaera eta funtzionaltasuna analitzatzeko. Hala ere, 2013ko parte-hartze prozesua hartu da kontuan eta, linea askotan, dimentsionamendua bat dator 2015eko proiektuan proposatutakoarekin.

Horrengatik guztiarengatik, ez da bidezkoa espedientea baliogabetzea, 2013ko parte-hartze prozesuaren emaitzak kontuan hartzen baitira.